

# Lezetxikiko lana gaurkotzeko

Barandiaran beka jaso dute Alvaro Arrizabalaga eta Maria Jose Iriarte arkeologoek. Besteak beste, Jose Miguel Barandiaranen Lezetxikiko aurkikuntzak digitalizatuko dituzte, ikertzaileek eskura izan dezaten. Ostean, indusketekin jarraitu gura lukete

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Lezetxiki aztarnategiak izaniko bilakaera izango dute aztergai Alvaro Arrizabalaga eta Maria Jose Iriarte arkeologoek. Bada, horiek biek urteak daroztate Arrasateko leizearen azterketan murgildurik, eta horretan segitza ahalbidetuko dien Barandiaran beka jaso berri dute. Besteak beste, aztarnategian gaur arte eginikoa gaurkotzea ahalbidetuko die 10.000 euroko diru laguntzak. "Gaurko ikertzaileen eskura jarri gura ditu-

gu Barandiaranen garaikoak -aurkikuntzak eta ikerketa metodoa, adibidez-, euren ikergaietan erabiltzeko aukera izan dezaten", argitu du Arrizabalaga arkeologo oñatiarrak. Hain zuzen, *De ayer y de hoy* bataiatu dute egitasmoa.

Bada, Barandiaranek burubelarri jardun zuen Lezetxikin 1956 eta 1968 urte bitartean, indusketa lanetan murgilduta. Eta esangura handiko aurkikuntzak egin zituen. "Horien bueltakoak biltzen dituzten do-

kumentuak izan baditugu, baina ez diegu gura moduko erabilerarik ematen, ez baitaude euskarri erabilgarrian. Oztopo horri buelta ematen dihardugu", argitu du Arrizabalagak. Horren bidean, besteak beste, jada esku artean dituzte Barandiaranen gutunak, argazkiak eta ikerketa dokumentuak; eta horiei forma ematen dihardute, "puzzle moduko bat egiten".

Horrez gain, Lezetxikiren bilakaera ere izango dute jorragai; eta, horretarako, nola ez, Ba-



Alvaro Arrizabalaga, 2015ean, Lezetxikin. GOIENA

## DEBAGOIENEN EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

"GUZTION ESKOLA, GUZTION ARTEAN"



URTARRILAREN 29TIK OTSAILAREN 9RA



605773 992 goieskola@gmail.com

goieskola



baikara

### HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DBH INFORMAZIO BILERAK eta ATE IREKIAK

ARAMAIO, San Martin Eskola  
ANGIOZAR, Herri Eskola  
ELGETA, Herri Eskola  
ANTZUOLA, Herri Eskola

Informazio zuzena eskolan bertan

**BERGARA**  
San Martin Agirre Eskola  
Ipintza Institutua

Otsailaren 3an, 11:00etan, Haur Hezkuntzako eraikinean. Ondoren, ate irekiak -zaintza egongo da-  
Urtarrilaren 30ean, 18:00etan

**ESKORIATZA**  
Luis Ezeiza Eskola

Urtarrilaren 26an, 17:30etik aurrera ate irekiak

**ARETXABALETA**  
Kurtzebarri Eskola  
Kurtzebarri Institutua

Urtarrilaren 25ean, 18:00etan  
Urtarrilaren 30ean, 18:00etan

**ARRASATE**  
Arrasate Herri Eskola  
Arrasate Institutua

Urtarrilaren 30ean, 18:00etan, Bedoñabon  
Urtarrilaren 31n, 18:00etan, Musakolan  
Urtarrilaren 30ean, 18:00etan, Arrasaten  
Urtarrilaren 31n, 18:00etan, Aramaion

**OÑATI**  
Erekaide Eskola  
Zuazola - Larraña Institutua

Urtarrilaren 27an, 17:00etatik aurrera ate irekiak  
Urtarrilaren 30ean, 18:00etan

HHI-EPA ARRASATE  
HHI-EPA BERGARA

Matrikula zabalik

randiaranen zeregina izango dute oinarrian. Besteak beste, haren lan modua, lantaldea eta, oro har, Lezetxikin buruturiko ikerketa prozesuaren nondik norakoak azalduko dituzte. "Finean, bilakatuz doaz metodoak –teknifikatuagoa da gaur egungoa–, baina garrantzitsua da lehenengo bueltakoak ezagutzea. Eta baliagarri dira, era berean: geuk bere sare topografikoa erabili dugu, esaterako", dio Arriabalagak.

#### Esangura handiko aurkituntza

Hain zuzen, 1996an ekin zion Arriabalagaren lantaldeak Lezetxiki industeari. Eta objektu, hortz-hagin eta hezur ugari aurkitu dituzte ordutik hona: 50.000 inguru dituzte katalogatuta. Egun, 20-25 metro karratu dituzte aztertutik –Barandiaranek aztertu zuenaren %20–.

"Orain, beheko haitzera iritsiak gara. Baina oraindik asko dago aztertzeke: egin ditugun kalkuluen arabera, esango nuke oraindik aztarnategiaren %50 inguru geratzen dela", dio Arriabalagak. Aipatu beharrekoa da lantaldeak Barandiaranen lana osatu guran

ekin ziela indusketei, "3 edo 4 urteko kontua izango zela pentsatuz". Bada, ustekabeko lana topatu zuten Lezetxikin –hogeita bat urte dihardute bertan–.

#### Bi urteko etena

Arkeologoen 2016an begin zuten Lezetxikiko landa lana azkenean, bi urteko etenaldia egin guran. "Bertan topatutako guztia buruzkoak jaso guran hartu genuen erabakia. Finean, ez da aski hezur edo objektuak ateratzearekin. Horiek prozesatzea dagokigu ostean; garbitzea,

### BARANDIARANEN GARAIOAK EGUNGO IKERTZAILEEN ESKURA JARRI GURAN DIHARDUTE

### "GURE KALKULUEN ARABERA, ORAINDIK LEZETXIKIREN %50 INGURU LEGOKE AZTERTZEKE"

siglatzea eta bildumatzea", argitu du arkeologo oñatiarrak. Hain zuzen, fase hori amaitzen dihardute orain.

Bada, "esangura handiko" objektu, hortz-hagin eta hezurak antzeman dituzte laborategiko lan horretan. Besteak beste, duela 215.000 urteko leizeko lehoi baten hortz-haginak dihardute aztertzen. Gauzak horrela, Barandiaranen bueltako proiektua bukatuta, Lezetxikiko landa lanari berredu gura lioke Arriabalagaren lantaldeak, eta erakundeen laguntza luke beharrezko horretarako.

#### Indusketa ostekoa

Dena den, Lezetxikiren industetan topaturikoa ez da soilik inguruko laborategietara mugatzen. Atzerrian ere badihardute bertan ateratakoa aztertzen –hamalau laborategi, guztira–. Esaterako, datazio lanetan dihardute Frantzia, Britainia Handian eta Australian, hogeita hamabost pertsona inguruk. "Bakoitzak eskura dituen bitartekoak eskaintzen dizkio proiektuari", argitu du arkeologo oñatiarrak.



2016an Lezetxikin aurkitutako hainbat hezur, hortz-hagin eta harri. JAGOBA DOMINGO

Hala, atzerrian interesa pizten duen aztarnategia da Lezetxiki. Eta, besteak beste, leizea ezagutu gura izaten dute Neanderthalen bueltako ikergaiak dituztenek. Hala, martxoaren 15ean landa bisita egingo dute atzerriko zenbait ikerlarik; horien artean izango da Neanderthal Museoko zuzendaria (Alemania). Horri lotuta, Arriabalagak azaldu du gizakien aztarna antropologikoa –hezurak– topatzeko aukera legokeela Lezetxikin.

#### Aurkitutakoa zabaltzen

Bestetik, topaturiko zabaltzeko lanean dihardute ikerlariek. Bide horretan, Arrasateko aztarnategia modu birtualean ezagutzeko egitasmoa lantzen ari dira. Jada egina dute demoa, eta, eskuragarri noiz jarriko zain daude; erakundeen webguneetan jarri gura lukete. "Finean, gaur egun, bestelako bitartekoak darabilzkigu informazioa hedatzeko, liburu bat argitaratzetik harago", dio Arriabalagak.

# Puntaik Punta: ekintza sorta zabaltzeko lanean

Puntaik Puntako ekintza sorta zabaltzeko lanean dihardute antolatzaileek. Besteak beste, Eskoriatza eta Aretxabaletako mendi martxak sartu gura dituzte egitarauan. Bestetik, kontzertuak ere izango dira gozagai

#### I.O. ARETXABALETA

Nazioarteko Fitur turismo azokan –Madril– iragarri dute ibarreko ordezkariak Puntaik Punta egitasmoa; besteak beste, ikus-entzunezkoa eskaini zuten horren bueltakoak azaltzeko. Hain zuzen, Aretxabaletan egingo dute hirugarren edizioa, ofizialki, ekainaren 15 eta 17 bitartean. Eta hedapen kanpainan murgildurik dira antolatzaileak. "Oihartzuna eman gura genion ekimenari; eta Fitur leku ona da horretarako", dio Unai Elkorok, Aretxabaletako alkate eta Mankomunitateko presidentea.

Aurtengoan, dena den, egitarau sorta zabaltzeko lanean dihar-

dute. "Garaiak bat egiten du Aretxabaletan eta Eskoriatzan antolatu ohi diren mendi ekimenekin. Beraz, aukera polita dugu hitzordu guztiek bat egin dezaten", azaldu du Elkorok. Aretxabaletan mendi martxa antolatu ohi dute ekainean –bi urtean behin–; eta Eskoriatzan, ostera, gabez takarran mendi lasterketa egoten da.

### NAZIOARTEKO FITUR TURISMO AZOKAN ERE AURKEZTU DUTE PUNTAIK PUNTA BIDEZIDOR JAIALDIA

#### Askotariko ibilbideak

Ohiturari jarraiki, Debagoienera bidezidorretan barrena ibiltzeko aukera eskainiko du Puntaik Punta egitasmoak. "Distantzia eta zailtasun maila ezberdinetako ibilbideak jarriko dira gozagai", argitu du Elkorok. Eta, gaur-gaurkoz, horretan dihardute lanean. Bestetik, bidezidor jaialdian ez da musikarik falta, "estilo anitzetako" taldeak ekarri gura dituzte antolatzaileek.

Besteak beste, herriko hainbat eragilerek dihardute harremanetan egitaraua sortu eta ibilbideak erabakitzeke. Eta tartean da Aretxabaletako mendi taldea.

### ARIZMENDI, KOOP. E.AREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Koop.E-ko Estatutu Sozietateko 30. artikulua dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak, 2018ko urtarrilaren 25ean egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E-ko bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

**EGUNA:** 2018ko otsailaren 8a.

**LEKUA:** Arimazubi guneko aretoa (Arrasate).

**ORDUA:** Lehen deialdia: 18:00. Bigarren deialdia: 18:30.

#### GAI-ZERRENDA

1. Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespentxostenaren irakurtzea. Aktaren onespenerako bi bazkide izendatzea.
2. 2016-2017 ekitaldiko zuzendaritza-txostena aurkeztea, eta hala balegokio, onartzea.
3. 2016-2017 ekitaldiko sozietate-kudeaketa eta Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera-erria, Diru Fluxuen Egoera-erria eta Txostena), eta baita Kudeaketa Txostena ere, aztertzea, eta hala balegokio, onartzea.
4. 2016-2017 ekitaldiko emaitzak banatzea.
5. 2017-2018 ekitaldirako helburu nagusiak eta aurrekontu ekonomikoa aurkeztea.
6. Kontseilu Soziala berritzatzea.
7. Kontseilu Errektorea ahalduz Batzar Nagusian hartutako erabakiak egikaritzeko.
8. Galde-erantzunak.

arizmendi ikastola

Aitziber Arregi Iribecampus  
Kontseilu Errektoreko Lehendakaria  
Arrasate, 2018/01/25